

Cannesko euskal ordezkariak kokagune berria izan du azokan, eta goi mailako profesionalen topaketei dagokienean, gorakada izan du

## Formatuak eta dokumentalak izan dira Basque Audiovisualek MIPTV azokan izan duen erakusmahaiaren interesgune nagusiak

- Sektorean zalantza giro orokorra egonatik eta parte-hartzaileen kopuruak behera eginatik, lortutako kontratu profesionalak garrantzitsuagoak eta kalitate handiagokoak izan dira
- Azokan sumatutako joerek lotura dute "new media content" garatzearekin; eta horrek bat egiten du Eiken Advance ekimenean adierazitako lan ildoekin

Formatuak eta dokumentalak izan dira Basque Audiovisualek Cannesko MIPTV azokan jarritako erakusmahaiko produktu nagusiak. Azoka hori da, hain zuzen, munduko garrantzitsuenetako bat. Euskal ordezkariak erregistratutako kontsulta eta informazio eskaera gehientsuenak genero horiei buruzkoak izan dira, eta joera bat dator azokan oro har sumatu den joera nagusiarekin. Ekimen hori Etxepare Institutuak eta Eikenek butzatu dute.

Basque Audiovisuaren erakusmahaira hurbildu diren pertsonen batez besteko profil profesionalari dagokionean, berriz, aurten ekoizpen eta banaketa etxeetako arduradun goren gehiago izan direla ondorioztatu da. Talde horren interesa, beraz, funtsezkoa da gerora hitzarmenak ekarriko dituzten "kalitatezko kontratuak" lortzeko; batez ere, kontuan izanda sektorean oro har dagoen zalantza giroak eta krisialdi ekonomikoak parte-hartzaileen kopurua murriztea ekarri dutela.

Basque Audiovisuaren babespean Cannesen euren txokoa izan duten euskal enpresak, hain zuzen, hauek izan dira: 3Koma, Bagnet, EITB, Expressive, Mediabask, Moztu Filmak, My Jok, Orio Produzioak eta Pausoka. Bertan izan dira, halaber, Eriz Zapiain errealizatzailea, Vitoria-Gasteiz Film Officen arduradunak eta Eikeneko zuzendaria, Itziar Mena.

Aurten, Riviera Pabilioian egindako jarduera komertzialaz gainera, MIPTV azokako parte-hartzaileek sektoreko azken joerak hurbiletik ezagutzeko aukera izan dute. Agidanez, euskarri digital berrietara bideratzen ari da

sektorea, bizkor-bizkor. Hala, mundu osoan egindako emanaldiek argi eta garbi berresten dute Eiken Advance ekimenaren bitartez Eikenek egindako apustua. Izan ere, badirudi sektorearen etorkizuna "new media content" izeneko kontzeptu bateraturantz bideratzen ari dela.

Programatutako jardueren artean, *Connected Creativity*-k izan du jendearengan eragin berezia; alegia, teknologia, telefonia mugikor eta entretenimendurako enpresa nagusiak aurrenekoz bildu dituen munduko foroak. Hiru sektore horien arteko lankidetzarako formulak sortzea eta bideratzea izan da foroaren helburua; izan ere, gailu eramangarrietarako edukiek geroz eta garrantzi handiagoa dute eta geroz eta gehiago erabiltzen dira.

3Dko telebista formatua eta "konektatzeko moduko" gailuak ere izugarri hedatu dira azokan. Antolatzaileen arabera, 107 herrialdetako 11.000tik gora parte-hartzaile erakarri dituzte. Guztira, 1.500 erakuslek aurkeztu dituzte euren produktuak MIPTV azokan; honek ekar lezakeen aurreikusitako eskaera, berriz, ustezko 4.000 eroslerena da.

Azkenik, ekimenak iraun duen 4 egunetan (apirilaren 4tik 7ra), 45 hitzaldi eta tailer egin dituzte. Eta hauek izan dira nabarmentzeko moduko hizlarietako batzuk: Hans Vestberg, Ericssonen zuzendari nagusia, hasierako hitzaldia eman zuena; Christian Hernández-Gallardo, Facebookeko negozioaren nazioarteko arduraduna; Claire Tavernier, FremantleMediakoa; eta Luke Bradley-Jones, BBC.com eta iPlayer-en zuzendari nagusia.

### **Sektorearen katalogoa**

Eikenek eta Etxepare Institutuak elkarrekin egindako ekimen honen bitartez, euskal ikus-entzunezkoek euren tokia egonkortu dute munduko eszenatoki garrantzitsuenetako bateko erakusleioan; helburu komertzial garbia duen eta merkatu berriei ateak zabaltzeko egiten den eszenatokian, alegia. Hain da horrela, erakusmahaietan bildu diren 11 enpresak ezagutzeaz gainera, parte-hartzaileek aukera izan dutela sektoreko euskal 41 enpresari buruzko informazio zehatza jasotzeko ("Basque Audiovisual" katalogoaren argitalpen eguneratu batean bildutakoenak).

Euskal enpresei buruzko informazioa, halaber, beti dago eskuragarri [www.basqueaudiovisual.com](http://www.basqueaudiovisual.com) helbidean. Duela gutxi berrituta dago, eta horixe da Basque Audiovisualen sareko katalogo zehatza.

---

Informazio gehiago behar izanez gero:  
MBN Comunicación  
Javier Palacios / Tel.: 94 435 63 30